

2024/2025 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 7tik 23ra** (biak barne) izango dela **2024-2025 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea**.

Urtarrilaren 27an, ATE IREKIAK izenez ezagutzen den saioa izango dugu. Aurten, bi saio eskainiko dira: **10:30etan eta 12:00etan. Agerialde eraikin parean** (Alperroburu, 5 zk.) elkartuko gara. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezkete). **Berlaratzeko interesa duenak**, urtarrilaren 25a baino lehen, [izena eman](#) beharko du. Anima zaitzte!



Elurretara irteera

Aurten ere, pandemia aurretik bezala eta neguko giroa aprobetxatuz, LH 5. mailatik gorako ikasleei zuzenduriko eski-aldia antolatu da. Bi irteera eskainiko dira: egun berean joan-etorrikoa eta asteburu osokoa.



EGUN BEREAN JOAN-ETORRIA	ASTEBURU OSOA
<p>NOIZ: 2024ko martxoaren 2an. NORA: Arette-ra. MODALITATEA: ESKI ALPINOA eta SNOWA. SALNEURRIA: 85 euro Prezioan honako zerbitzuak sartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autobusez bidaia (Irteera ordua: 5:30ak aldera eta bueltako ordua: 19:00ak aldera) - Ekipamenduaren alokairua: botak, bastoiak, kaskoa, eski edo snow-taulak (aukeraren arabera). - Begiraleak ikasleak zaintzeko - 2 orduko eski edo snow ikastaroa euskaraz. - Eguneko eski-asegurua. - Eguneko forfaita 	<p>NOIZ: 2024ko otsailaren 17tik 18ra. NORA: Candanchu-ra MODALITATEA: ESKI ALPINOA eta SNOWA. SALNEURRIA: 255 euro Prezioan honako zerbitzuak sartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autobusez bidaia (Irteera ordua: 5:30ak aldera eta bueltako ordua: 19:00ak aldera) - Ekipamenduaren alokairua: botak, bastoiak, kaskoa, eski edo snow-taulak (aukeraren arabera). - Begiraleak ikasleak zaintzeko - 2 orduko eski edo snow ikastaroa euskaraz bi egunetan. - Bi eguneko eski-asegurua. - Bi eguneko forfaita. - Mantenu osoa Villanuan.

OHARRA: Eski-estazioan bertan gertaturiko istripuak aseguratutik daude, estaziotik kanpo gertaturikoak, Gizarte Segurantzatik bideratuko dira.

Behin **izen-ematea eginda, ez da dirua itzuliko.**

Izena eman duten familiekin irteera baino astebete edo bi aste lehenago bilera bat egingo da dena zehazteko eta zalantzak argitzeko.

Bi irteerak egiteko gutxieneko taldea osatu beharko da eta bi eguneko irteeran gehienez ere 117 plaza daude eta izen-emate ordenaren arabera onartuko dira.

ORDAINKETA: Izen-ematearekin batera aukeratutako irteeraren kostua bere **osotasunean ordaindu** beharko da Nafarroako Rural Kutxan, ES60 3008 0259 1420 8481 3324 (Kontzeptuan ikaslearen izen-abizenak) **urtarrilaren 26a baino lehen. Ordainketa egiaztagiria izena emateko galdetegian bertan atxiki behar da,** ez da idazkaritzan aurkeztu beharko.

IZEN-EMATEA: Urtarrilaren 12tik 26ra bitarte egin ahal izango da honako galdetegia betez:

[Egun bateko irteera](#)

[Bi eguneko irteera](#)

Edozein zalantza argitzeko, jarri harremanetan eskolakirola@udarregi.eus helbidean.

HarEman

Usurbil Harrera Herria izateko lan-ildoaren barruan, komunitatetik iritsi berriei harrera emateko proiektu berri bat sortu da.

hareman

Proiektuak HarEman izena du eta mentoretza sozialetik dator, esku-hartze sozialeko metodologia da bi pertsonen artean konfiantza harremana sustatzeko. Pertsona mentoreak bere erreferentzia eta akonpainamendua eskaintzen dizkio inklusioa lortzeko zailtasunak dituen beste pertsona bati. Nola? Denbora partekatzen aisialdian eta pixkanaka-pixkanaka elkar ezagutzen, elkarren arteko harremana elikatuz. Hau da, hartu eta eman, HarEman!

Parte-hartzea borondatezkoa da eta 5-6 hilabeteko konpromisoa eskatzen da.

Proiektuak irauten duen bitartean laguntza eta jarraipen teknikoa izango dute parte-hartzaileek

HAUR-HEZKUNTZA

Danborrada

Gaur arratsaldeko 16:00etan danborrada joko dugu Agerialdeko jolastokian LHko ikasleekin batera. **Haurrak laukidun lepoko zapia jantzita** etorri behar dute.



Inauteriak

Gogoratu, laster inauteriak datozela eta zakuak prestatu behar direla. Norbaitek zakua prestatu gabe baldin badauka eta laguntza beharko balu, tutoreari jakinarazi, mesedez.



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak LH1

LH 1eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LH1. Mailako familientzat oharra

Orain arte haur hezkuntzan erabilitako Inauterietako zakuak etxean badituzue eta ez badituzue behar, gustura hartuko genituzke ikastolan hurrengo urteetarako ez daukatenei uzteko.

